

## ELKARTEAK

Esku artean dugun proiektu hau aurrera eramateko, ezinbestekoa da beste enpresa eta elkarteekin aliantzak sortzea, bestela, oso zaila izango litzatekelako gure ideia errealitatera ekartzea. Beraz, hainbat enpresa aukeratu ditugu garraioarekin, webgunearekin, plastikoaren bilketarekin eta gure produktuaren salmentarekin laguntzeko.

Hasteko, gure panpinak egiteko behar dugun plastikoa ikastoletatik jasotzea erabaki dugunez, ideia ona dela pentsatu dugu Ikastolen Elkartearekin aliantza bat sortzea. Beraien ikastoletatik plastikoa biltzen utziko digute, baina horren truke, bisitatutako ikastola bakoitzeko ikasgela bakoitzari guk sortutako panpin bana oparitu beharko diogu. Beraiekin hitz egingo dugu ikastola bakoitzera zein egunetan eta zein ordutan joan gaitezten plastikoaren bila.

Ugasa enpresarekin harremanetan jartzea ere oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu, izan ere, enpresa honek lokalak alokatzen ditu eta oso ondo etorriko zaigu jasotako plastikoa bertan biltzeko eta behin gure panpinak ekoizita daudenean bertan gordetzeko. Gainera lokala oso prezio onean eskaintzen dute.

Gure panpinak ekoizteko, Clon Factory enpresa aukeratu dugu. Enpresa hau Getxon kokatzen da eta panpinak egiten dituzte. Beraiekin jarriko gara harremanetan eta zenbat plastiko bidali eta zenbat panpin ekoizti hilabeteetan adostuko dugu.

Gure webgunea sortzeko beste enpresa batekin harremanetan jarri beharko gara eta webgunea sortzeko eman beharreko pausuak ematen lagunduko digute. CodeSyntax enpresak webguneak egiten ditu, eta pentsatu dugu beraiekin aliantza bat sortzea eta bion artean gure webgunea sortzea. Webgunea bezeroekin harremanetan jartzeko modu on bat da, eta beharrezkoa da bertan produktua saltzeko.

Gure produktua webgunean saltzeaz gain, pentsatu dugu oso ideia ona dela jostailu denda batean saltzea. Hainbat jostailu denda begiratzen eta aztertzen egon gara eta uste dugu gure produktua saltzeko denda egokiena Toys R' Us enpresa dela, izan ere, beraien webgunea irakurtzen egon gara eta beraiek garrantzi handia ematen diote familiari eta haurren hezkuntzari, eta hori bera da guk gure panpinekin lortu nahi duguna: datozen belaunaldiak errespetuan eta aniztasunan hezteak.

Azkenik, gure produktuak biltegitik dendetara garraiatzeko UPS garraio enpresarekin aliantza bat sortzea erabaki dugu. Enpresa hau produktuen distribuzioaz arduratuko da eta oso beharrezkoa iruditzen zaigu gure produktuak ongi iritsi daitezen dendetara.